

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

- Zein da zure bezeroa?

Bi bezero talde ditugu, lehenengoak, haien lokalak alkilatu nahi dituzten pertsonak izango dira. Bigarrenak, Durangaldeko gazteak izango dira, ohikoenak, 15 eta 22 urtekoak. Horregatik, merkatu-nitxoak da gure merkatuaren segmentazioa. Bi bezero talde ditugu eta talde bakoitzak bezero oso zehatzak eta bereiztuak dira. Bezero talde bakoitzarekin ditugun harremanak bezero taldeari egokituta egon behar da eta.

- Zein dira bezero horien ezaugarriak?

Gure lehenengo bezero taldea, hau da, haien lokalak alkilatu nahi dutenak; pertsona helduak izango dira eta dirua irabazteko asmoarekin jarriko dute lokala alkilagai. Pertsona horiek lokal bat edo gehiago alkilatzeko asmoa izango dute eta gure lana izango da lokal horiek gazte taldeen artean eskeintzea eta talde onena aukeratzea lokala alkilatu dezaten eta ondo zaindu dezaten. Beste aldetik, Durangaldeko gazteek inmobiliaria munduan ezjakintsuak izango dira zihurenik, horregatik beharko dute gure laguntza. Lokala alkilatzeko asmoarekin kontaktatuko dute gurekin eta gazte talde bakoitzak dituzten ezaugarriak kontuan hartuta erabaki beharko dugu guk zeintzuk lokal uste dugu hoberenak izango direla haientzat eta, azkenik, haiek erabakiko dute adoz badaude ala ez.